

Elizaren gaiak testo zahar batean

(The church subjects in an old text)

Garmendia Larrañaga, Juan
Eusko Ikaskuntza
Miramar Jauregia. Miraconcha, 48
20007 Donostia

BIBLID [0212-7016 (1997), 42: 2; 367-377]

Euskaraz eta orduko grafiaz idatzia den 1811ko dokumentu honetan arau batzuk ezagutarazten dira Eliza Katolikoak agindu edo irakasten duena egokiro bete dadin, zenbait debekurekin batera.

Giltz-Hitzak: Euskara. Erljioa.

Este documento de 1811 redactado en euskera, con grafía de la época, señala varias normas para el cumplimiento ortodoxo de lo que manda o enseña la Iglesia Católica, como algunas de sus prohibiciones.

Palabras Clave: Euskara. Religión.

Ce document de 1811 rédigé en basque, écrit comme à l'époque, indique certaines normes pour l'accomplissement orthodoxe de ce que commande ou enseigne l'Eglise Catholique, tout comme certaines de ses interdictions.

Mots Clés: Basque. Religion.

(Larrañaga) 20. Cuarta ma 20/1822
 de la Real Academia de la Lengua Vasca.
 Alabatur

Aldeguizu peccatutic, eta eguitzu obra onac, esaten
 zu, NC, David laegue Santuac. Nite oetan biltzen eta
 sartzen dira Jaunaren aguinte gucine, eta guizonaren
 equinbideac. Jaunaren auzearan sartzea ta ibiltzea, da bide
 chit ederra ta epogua, peccatutic aldeguiteco, eta obra onac
 onqui equiteco. Peccatutic aldeguiteco; ^{etazuzi logu,} nota alabana. izan
 go deru peccaturaco auzardia fedearan arquirag. gogora e-
 cartean, eta simitean, lecu gucietan, eta gu baiden toqui-
 an beztan arquitean dala Jangoicoa bera, eta arguia e-
 custen dituala gauza gucine, igarone, igarotzen, eta igaro-
 co diranac? Beadin da Jaunarentzat gauza nola equina,
 illumbea, nola equinaren erdia. Equiquia bera bera ere
 arguiagoa dirala Jaunaren beguine, esaten dirue escri-
 turan Santac. Era berean da bide chit ederra obra onac
 onqui equiteco. Languille, edo seruitari bat, naoncin be-
 guina dagoquionean, contuz ari da bere lanear. Ta are
 contu andagoarequin Craqueren beguietan ari dante-
 an. i. Nolaco orretarequin bada ez dituzu equingo obra
 onac, baldin sartua bazarde, Craque gucien Craquea
 eta zure Jangoicoa beguina dagoquizula? Ene seme, e-
 saten cion, Tobias zaraac bere semeari; Ene seme, go-
 goan edugui ezazu beti Jangoicoa, eta beguina, ez lecu-
 nic eman beccaturari cere biotean. Tabiltza nere au-

Idatzi zahar hau neure eskuetan dudala, badira gutxi gora-behera hemezortzi bat urte. Neure etnologi ikerketak egiten ari nintzela Olaztin aurkitu nuen, hain zuzen. Testu hau nire eskuetan jarri zuenak bere izena gordeta eduki nahi izan zuen. Neronek ere urte batzuetan gordeta eduki dut izkribu hau; baina bere antzinatasuna gure euskararentzat mesedegarri izan litekeelakoan, argitaratzea erabaki dut. Bere balioa laster igarriko diote gai hauetan adituak direnek.

1996ko azaroaren 7an

Platica minervas duodecima p^a. la 3^o. Dom^o. de Marzo de 1811, q. ocurre con la 3^a. tamb^{en} de cuaresma

Alabatua

Aldeguizu pecatutic, eta eguitzu obra onac, esaten dizu, NC, David Erregue Santuac. Hiic oetan biltcen edo sartcen dira Jaunaren aguinte guciac, eta guizonaren eguinbideac. Jaunaren aurrean jartcea ta ibiltcea, da bide chit ederra ta egoquia, pecatutic aldeguiteco, eta obra onac ongui eguiteco. Pecatutic aldeguiteco: ¿nola alabaña izango dezu pecaturaco ausardia fedearen arguiareqⁿ. gogoraecartcean, eta sinistean, lecu gucietan, eta gu gauden toquian bertan arguitcen dala Jangoicoa bera, eta naguiro ecusten dituala gauza guziac, igaroac, igarotcen, eta igaroco diranac?. Berdin da Jaunarentzat gaua, nola eguna, illumbea, nola egunaren erdia. Eguzquia bear baño ere arguiagoac dirala Jaunaren beguiac, esaten dizue Escritura Santac. Era berean da bide chit ederra obra onac ongui eguiteco. Languille, edo servitzari bat, nagusia beguira dagoquionean, contuz ari da bere lanean: ta are contu andiogoarequin Erregueren beguietan ari danean ¿Nolaco arretarequin bada ez dituzu egingo obra onac, baldin oartua bazaude, Erregue gucien Erreguea, eta zure Jangoicoa beguira dagoquizula?. Ene seme, esaten cion, tobias zarrac bere semeari; Ene seme, gogon eduki ezazu beti Jangoicoa, eta beguira, ez lecuric eman becatuari cere biotcean. Zabilta nere aurrean, edo beguietan, eta zu izango cera virtutetsua era santua, esan cion jaunac Abrahani. Era berean itceguiten due eleizaren eracusle Santuac. Ala ere gueyenetan ez gaude, eta ez gabiltza gu Jaunaren aurrean, ceren erraz aztutcen gueran Jangoicoaz, eta bera utciric igarotcen gueran pecatuaren bideetara. ¿Eta cer gauza itsusiagoric, N.C, Jangoicoa utciric pecatuari jarrayatcea baño?. Zure Jangoicoaren amorioa eta eguiñalac zure animaren alde ez ote due biguinduco zure biotza pecatua betico uztera? Esnaezazu zure fedea eta beguira cer eracusten dizun. Jaun au da, zu ecerecetic atera ciunduana, eta atera, bera ezagutceco, amatceco, ta beticotasun gucian berarequin batean ceruan doatsua izateco. Zure fedea eracusten dizu, Adam gure lembicico gurasoac galdu zuala, fruta devecatua janda eguin zuan pecatuareqⁿ., Jaunaren gracia, ta adisquidetasuna, ta ceruraco escua ta derechoa: eta galdu zuala, ez bacarric beretzat, baita guretzat ere. Orregatic Adanen humeac sortcen diranetic, arguitcen dira pecatu jatorrizcoaren loyez ciquinduc, eta Jaunaren aserrearen azpian. Zure siniste onac eracusten dizu, Adanen pecatuac galerazo cigun ceruraco gracia, ta derecha guretzat irabazteco, Cerutic jechi zala trinidadeco bigarren persona, eta guizon eguin zala Espiritu Santuaren obrac ta graciaz Virginia chit Santaren sabelean. Zure sinistea eracusten dizu, guizon eguin da, gurutcean eman zuala bere vicitza, eta bere eriotzareqⁿ. irabaci zuala guretzat Ceruraco derecha ta araco bear dan gracia. Zure sinistea eracusten dizu, ipiñi cituala Ceruco gracia animetan isurtceco, zazpi iturri, edo sacramentu beiñere agortcen ez diranac, ta oen artean Bataioco, eta confesioco sacramentuac, Batayocoa, pecatu jatorrizcoa barcatceco, eta confesiocoa, Batayoa ezquero eguindaco pecatuac barcatceco. ¿Cer gueiago? Ipiñi zuan sacramentu guciz miragarri ori, eta ceruan vici bada ere, dembora berean sacramentu onetan jartcen da, ango jarlecuac utci gabe. ¿Certaco uste dezu? Gurequin, eta gure artean vicitceco; guri emateco bere gorputza, bere odola; ta bera dan gucia. ¿Esan guidazu orain, N^oC^a, Guri onguinayez hau gucia eguin

duan Jaunaren ontasun eta maitagarritasuna norañoocoa izango da?. Naitaez aitortuco dezu, dala ontasun, eta maitagarritasun neurric, bazterric, eta mugaric ez duena. ¿Eta au jaquiñic, izan dezu zuc ontasun onen contra jequitceco ausardia?¿Alcha cera ain ardura guchirequin zure Jangoicoaren, eta zu ceruraco eguin cinduan Aita onaren contra? Bai Christaua; Pecatua ceneganatcean, utci dezu cere Jabe ona, eta Salvatzallea: utci dezu, zuri betico vicitza eman naiez guizon eguin, eta bere odolaren costuz erosi cinduan Jauna; eta obraz esan dezu: ez det Jaun au servituco. Beguira cein itsusia dan esquergabequeria au! Ta beguira cer galdu dezun pecatu ta esquergabequeria oriequin.

Ay! Galdu dezu zure Jaungoicoa, eta Jaungoicoa galdu ezquero, gucia galdua da. Galdu dezu beraren gracia, araco soñeco eder hura, ceñarequin apaindu zuan Espiritu Santuac batayoco egunean zure anima, eta eguin cinduan Aita beticoaren ume, Jesu-Christoren senide, trinidad e gucic Santaren Eliza becela, ta azquenean Ceruaren hereder. Galdu dezu Ceruraco escua ta derecho gucia: galdu betico vicitza doatsua, betico atsegin contentuac, eta Jaunac zureztat prestaturic ceuzcan, ondasun miragarriac. Gueratu cera Jaincoaren aserrearen azpian, eta Luciferren mendean ¡Ah! baciñaqui cein itsusia zauden Jaunaren beguietan!

Eta onembeste calteren ordaiñ ¿Cer frutu atera dezu?¿Cer irabaci dezu, orain lotsatcen zaituen pecatu oriequin, galdetcen dizu Sⁿ Pabloc?¿Cer, betico su ta garrac, betico pena ta oñaceac baicic? Bestela; jachi zaitte orain viciric pensamentuz oñace den toqui izugarria, edo Infernura, guero hill ondoan jachi etzaitecen betico ¿Cer dala uste dezu Infernua? Hura da, etsai gaiztoaren, eta bere sevitzarien leize izugarri bat, non beticotasun gucian egon bearrac diran oñacez lertcen. Hura da, beti sutan dagoan labe icaragarri bat, beñere itzalico ez dana; eta ceñetan, anima galdu ayec izango diran ango illatiac. Hura da, sofre eracequico putzu bat, non Lucifer bere languilleaquin batean, egongo dan eternidade gucian erretcen. Hura da itz batean, neque ta pena guciac arguitcen diran lecuca, NC^a, toqui au, eta emengo betico penac dira pecatu eguin dezun bacoitcean zuc irabaci dezun saria.

Ala ere zure Jaunaren urriquimentu, edo misericordiac ichedon dizu, irten zaitezen pecatutic, eta zure (...) galeratic. Deitcen dizu artzai onac ardi galduari deitccen dion eran: Eta Jesusen eriotza, eta odol preciotsua bitarteco dirala esqueintcen dizu zure becatu gucien barcacioa, baldin viotz osoz damuturic, eta confesaturic, vicitza on bat eguin naibadezu: Ez det nai, esaten dizu, becataria galtcea, baicic nigana biurtcea, nigana biurtcen dan une, edo puntuan, aztuco naiz eguin dizquidan esquergabequeria guciac.

¿Au adituric, NC^a, etcera bertatic zure Jangoicoagaña biurtuco?¿Noiz artean egon naidazu pecatuen catez lotua, eta Satanasen mendean?¿Noiz artean iraun bear dezu pecatuaren bideetatic aldeguin gabe? Beguira zure Jangoicoac zure pecatui ipiñi dien neurria igaro ez dezazun. Orain ematen dizun dembora, ta esqueintcen dizquitzun lagunzac, guerta diteque guero ucatcea. Izan zaitte leyala eran zuten zure urriquimentuz, zure Jangoicoac zure biotzari eguiten dizquion deyai. Aldeguizu pecatutic, biur zaitte viotz osoz zure Jangoicoagana; onen aserrea aldazazu adisquidetasunean confesioco iturrian, eta orduan esan dezaquezu: Poztu gaitecen egun onetan: hau da Jaunaren ontasunac neretzat arguitu duan eguna. Bay Christaua, egun onetan urratuco dituzu Egiptoco cateac, garaituco dezu etsai galgarria, eta igaroco cera Jaunaren bendicioetaco lurrera. Egun onetan ayenatuco dezu pecatua, eta onec berequin dacartcen tristura ta calteac. Egun onetan biurtuco cera zure Aita Cerucoagana, Evangelioico seme ondatzallea becela, eta zure Aita onac apainduco ditu graciaren soñeco ederrarequin. Emango dizu caridadea deritzan virtutearen erasztuna, eta Ceruraco videan ongui ibiltceco oñetacoac, edo laguntzac. Assi zaitte vicitza onean, eta iraun zazu azqueneraño, esaten dizu Jesusec. Ongui assi zan Judas, ongui asi zan Pedro: etzuan iraun arc, eta bai onec; galdu zan ura, eta salvatu zan au. Beguira cein diferenteac diran oen bian suerteac.

Azquenean emango dizu Aita onac zure animaren janaritzat ¿baña cer uste dezu? Bere seme bacarra; Bildots pecatuac quentcen dituana; zure animaren erosle Jesus, Sacramentu miragarri orretan daucazuna. ¡Cein zorionecoa zu prestaera eder batequin alderatuco baciña may santura Aingueruen Janari ori artcera! ¡Cein ondasun ugariac ateraco ciñuzquean comunio Santutic! Baña zu, NC. prestaera laburrarequin zabilzalalaco, ondasun laburrac artcen dituzu. Neurri chiquiarequin iturrira bazoaz, ur guchi echeraco dezu; ta are guchiago berandutic berandura baicic ez bazabiltza.

Azqueneco bi eracutsialdietan aditu cenduan, Cristaua, cein pecatu itsusia dan Comunio gaiztoa: da bada Sacrilegio guztiz izugarria; cernen Judasen eran saltcen duan Jesus Jangoico viciaren semea, eta beregan danez berriro ipintzen duan gurutceco neque oñaceen artean; orregatic jaten eta edaten du S.Pabloc dionez, bere betico galera. Gaur ecusi bear degu aurrena, cer bear dan comunio gaiztoa ez eguiteco. Urrena, cer bear dan *Sacramentu* miragarri orren ondasunac ugari artceco. Atcenean emendic ateraco degu Oracioaren gaya.

1,,

Comunio gaiztoa ez eguiteco bear diran gaucetatic bat, da cer, eta nolaco prestaerarequin artu bear dan jaquitea. Ala icasi cenduan Cristaua, aurtasunetic edo chiquichoa ciñanetic. Anciñaco demboran aur jαιο berriai ere eman oi citzayen Comunioco Sacramentua, lecu batzuetan, batayoarequin batean baña obeto iritci cion Eliz Ama Santac, ezagueran sartu gabeco aurrai Sacramentu au ez ematea; eta nai du, Sacramentu orren ondasun^{en} ezaguera, ta gustoa izan denen? artean, ichedotea. Au onela eguiten ez paliz, guertatuco litzaque aurrera ere, len ascotan guertatu dana; auda, Jaun aundi ori, prestaera, eta beguiramenturic gabe nola nai artcea. ¿Cer gueiago? Zartuta ere ez jaquitea, nola prestatu eta moldatu ditezquean Jaunaren maian jartceco. ¡Ay guraso zabarrac! Eta baciñaque nolaco calteac datocen, zuen seme ta alabai doctrina ongui ez eracustetic! ¡Baciñaque ceñ contu estua eman bearrac ceraten Jaunaren aurrean!

Comunio gaiztoa ez eguiteco bear dan bigarren gauza da Jaunaren gracion egotea: ala eracusten du gure fede santac. Sⁿ Pabloc esaten digu: proga dezala bacoitzac bere burua: *Probet autem seipsum homo*: eta guero jan dezala, cerutic gugana jachi dan ogui orretatic: et sic de pane illo edat: ¿Cer aditcera ematen ote digu Sⁿ. Pabloc itz oetan? Beguiru deguigula bacoitzac gueren viotzari, eta arguitcen badegu pecatu larri edo mortalen bat, confesio-co sacramentuaren bidez barcatu ez dana, ez gaitecela jarri Jaunaren mayan. Ala aditcen ditu Trentoco Concilioac Sⁿ. Pabloren itzac. (c) Argatic anciñaco demboran Comunioco aurrean otseguiten zuan Diaconoac; *Saneta Sanctis*: esaten bazuan becela: Sacramentu miragarri au santuentzat ipiñia dago, eta ez datorrela pecatuan dagoanic. Eta ez da asco Jaunaren gracion peccataria nola nay jartcea, baicic jarri bear du confesio-co Sacramenturequin. Ala eracusten digu Trentoco Concilioac.

Comunio gaiztoa ez eguiteco bear dan irugarren gauza da, barau naturalean, edo gau erdia ezquero, ecerere jan eta edan gabe egotea. Herege ascoc ez due ecertan artcen barau au, baña guc, Eleiz Ama Santca eracusten diguna enzun, eta eguin bear degu, eta ez Eleizaren etsayac daraustena. Ez daquigu, noiz danic aguindu zuan Eleizac barauan, baña bai anciñatic aguindua dagoala. Ala ere, Sacramentu au artu dezaquee, eta artcen due, erioztaco perillean arquitcen diranac, barauric ez egon arren; eta perillac badirau, ardezaquee sarritan, edo confesoreac ongui deritzan aldi gucietan.

Iru gauza oec dira asco, guizon jaquinsuac eracusten diguenez, comunio gaiztoa ez eguiteco; eta hau bera aditcera ematen du Trentoco Concilioac. ¿Baña iru gauza oec asco ote dira, Sacramentuaren ondasunac artceco? Batzuec dioe, iru gauza oezaz gañera gauza bearra dala, comunioco demboran jayera edo Devocioa, eta pecatu venialetaraco gogoa ere

mentuaren ondasunac vgarri artecco beax dan lenengo pa-
 ura da, pecatu larrien loyetatic erecie, venialen gogoeta-
 tic ere anima garbitico. Pecatu venialac, batzuec dira iga-
 roac, cu da, len couin badira ere, Comunioco demboran equi-
 ten ez diranac. Demagun Christava: Luc vteci derula peca-
 tu octaraco gogoa eta naicundeac: Orduan pecatu venial oec-
 ez dirue eragotico Sacramentuaren ondasunac vgarri art-
 cea. Ala eracusten digu S.^{to} Thomasec. Beste pecatu veni-
 al batzuec dira, Comunioco demboran beatan equiten dira-
 nac. Guerta ditque an modu arrotara. Lenengo lecuac, Sa-
 cramentua onten bada, munduaren bequietan onaren idu-
 xia equiteco. Bigarrena, Comunioco demboran gogoa bada-
 uca batec, bere nayer munduco anaqueietan. Hirugarre-
 na^{do}, demboran artan beatan gogoa itratric badauca pecatu veni-
 alen batzuetan; equin dezagun contu, homra, ondasun, apa-
 indusa, exauri, fan, edan, ta beste onelaco garcetan. Laugar-
 rena, demboran artan equiten bada, Sacramentuari zorra-
 yon bequiramentu edo ennespetoari ez dagocan gauraren
 bat, dala bequiratecan, edo beste moduren batean. Pecatu
 hoec, berenez venialac izan arren, eragorten due Comu-
 nioco ondasunac vgarritica. Arrotic vteci beax ditugu arre-
 ta andiarequin, ez bacaric, pecatu larriac, baita venialen
 gogoa eta naicundeac ere, Jainaren mayan sartico. An adite-
 ra eman cigun Jesus onac, Apostoluar onac garbitcan. Bada-
 quit, Christava, izango ditugula pecatu venialac, prestaerac

ayenatcea. Iritci onec dionez, asco, edo obeto esateco, banacaren batzuec ez, beste guciac vici dira, sacramentu orren ondasunac progatu ere gabe; pecatu larriric ez izanarren. Baña Theologoric gueienac S^{to}. Thomaseqⁿ. batian eracusten digue, Comunioco Sacramentuaren ondasunac dirala asco, eta oetatic bat dala gracia ugaritcea. Ondasun onetatic cerbait artcen due Jaunaren gracian comulgatcen diran guciac; baña ez, jayera eta prestaera onarequin comulgatcen diranac becela. Beste ondasuna da, animaco poz ta contentu bat, alaitcen duana guizona, emengo neque, ta gurutceetan, gogotic Jauna servitceco. Baña animaco poz eta atsegin au, ez oy due artu, Jaunaren gracian comulgatcen diran guciac, baicic Jaunaren gracian egoteaz gañera, jayera, eta prestaera eder batequin Jauna bera artcen duenac. Eta ona cergatic gueienac, Comunio ascoren ondoren arguitcen diran erquituac becela animaren aldetic. Ez dira ala baña prestatcen bear dan jayerareqⁿ., Jaun andia artceco. = Ecusi deza-gun orain, cer bear dan, Sacramentu miragarri orren ondasunac ugari artceco.

S11.,,

Comunioco Sacramentuaren ondasunac ugari artcecho bear dan lenengo gauza da, pecatu larrien loyetic ezecic, venialen gogoetic ere anima garbitcea. Pecatu venialac, batzuec dira igaroac, au da, len eguin badira ere, Comunioco demboran eguiten ez diranac. Demagun Christaua: Zuc utci dezula pecatu oetaraco gogoia eta naicundea: Orduan pecatu benial oec ez dizue eragotcico Sacramentuaren ondasunac ugari artcea. Ala eracusten digu S^{to}. Thomasec. Beste pecatu venial batzuec dira, comunioco demboran bertan eguiten diranac. Guerta diteque au modu ascotara. Lenengo lecuan, sacramentua artcen bada, munduaren beguetan onaren iduria eguiteco. Bigarrena, comunioco demboran gogoia badauca batec, bere navez munduco aurquerietan. Hirugarrena da dembora artan bertan gogoia itsatsia badauca pecatu venialen batzuetan; eguin dezagun contu, honrra, ondasun, apaindura, erausi, jan, edan, ta beste onelaco gaucetan. Laugarrena, demboran artan eguiten bada, sacramentuari zorzayon beguiramentu edo errespetoari ez dagocan gauzaren bat, dala beguiratcean, edo beste moduren batean. Pecatu hoec, berenez venialac izan arren, eragotzen due comunioco ondasunac ugaritzea. Argatic utci bear ditugu arreta andiarequin, ez bacarric, pecatu larriac, baita venialen gogoac eta naicundeac ere, Jaunaren mayan jarteco. Au aditcera eman cigun Jesus onac, Apostolui oñac garbitean. Badaquit, Christaua, izango ditugula pecatu venialac. prestaereric ederrena eguin da ere; baña dembora berean uler dezaquegu, aetan irauteco, eta aec eguiteco naya ta gogoia.

Comunioco sacramentuaren ondasunac ugari artcecho bear dan bigarren gauza da, anima ederqui apaintcea fede, esperanza, caridade, ta beste virtuteen afectoaquin. Echeren batera Erregueren batec joan nai duanean, ez da asco echea garbitcea, baicic apaindu ere bear da alic onguiena. Eta au onela eguin bear bada munduco Erregue bat echean artceco: ¿Cer eguin bear ez da Erregue gucien Erreguea gure viotcetan artceco? Orregatic piztu bear da fedearen arguia, eta argui onequin bear degu ecarri gogora, nor dan gugana datorrena, norgana, eta certara datorren. Emendic piztutcen dira erraz Esperanza ta Caridadea. Baña ¿Cer guertatcen da? Asco ez dira sayatcen gauza oetara, eta artcen due Jaun andia nola nai, edo jayeraren apur gabe.

Comunioco Sacramentuaren ondasunac ugari artcecho bear dan irugarren gauza da, asmo edo intencio garbia. ¿Eta guchi ote dira, asmoan bague Jaunaren mayan jartcen diranac? Ez nosqui. Oetatic izan oi dira, borchaz, edo gogoren contra berandutic beranduro datocenac. Oetatic dira, Jauna artcen duenac, ez vicitza ondunayez, baycic oitura utsez. Argatic garbitu bear degu alic ondoena gure asmo edo intencioa, artcen degula Jauna, vicitza onean irauteco, eta Jesusen amorioan aurreratceco gogoz; edo onen antceco fiñen bategatic. Gañera sortu bear degu, sacramendu orren ondasunac artceco gose eta egarria; cerren gogo gabe artcen dan janariac, on guchi eguin dezaque. Ceruco janari onec, ontza-

deaguingo, eta Comunioco Sacramentuaren ondasunac uga
nitzea eragozten ez dirun eran. Ala ere ccusi oidiua cem
baist chaitau Eleizana etortcen, ain baldan eta enas, ecen, di
andi, ez duela arte Jaunaren lehea, eta egon toquia dala.

Arguenic Comunioco Sacramentuaren onda-
sunac ugar antreco, faxxi bea da, Jaunaren mayan be-
guiramentu, edo beldua andi batequin, gogora ceartcen dala,
nozen mayan faxxi, eta noz artu bea dan. Testamentuco
cucha etzan sacramentu oraxen iduria baicic; eta ala ere nai
izan zuan Jaunac, Cucha oni bequiramentu aundi bat por
detzea, alaco moduan, ecen cucha au ceabiltenean batetic
bestera, aguindu zuan, etzequiola inoz alderatu bi milla
beroz; eta guenttu cingn ill otzac bearroquei ta amax milla
betramita, ^{horcabaque} ^{propiar} salogui, ibilli cinalaco cucha ccusi mayez. Na
laco bequiramentu ta belduara zorro ez diogu bada sacra
mentu oraxi; Testamentuco cucha in alacoa zox baicitra
yon?

Orna, M^{ca} cez beadan Comunioco Sacramentuaren
ondasunac ugar^{ant} antreco. Eraxoz iguerri deraquezu emen
dic, cezotic arquiteen guexan gu beti, gauden becen argal,
eta beartai ^{de} animoaren aldetic: bama au obeto ezapulteco,
eta bea dizar como onac antreco, faxxi gartecen belauri
co Jaunaren aurraean, eta gogoan exabilli ditragun gauz
^{erant} ^{erant} erant ditragun gauzae. Seraxodillon lodos, flor. digne, selec mas pa
usado

Ileagan escatcen du gosea, dio Sⁿ. Agustñec; eta anciñatic esan zuan Davidec: gose dan anima, ondasunez bete eta aseco zuala Jaunac: () *Animam esurientem satiabit bonis*.

Comunioco sacramentuaren ondasunac ugari artceco bear dan laugarren gauza da, jancian modestia. Ez da ongui Jaunaren mayan sartcea soñeco enasaquin, ez eta arroequinquin ere eta are guchiago poyar salgai becela eracusten dirala; lecu ascotan ecusi oy diran becela. (Gure errietan ez da alde onetatic (Jaunari esquerrac) gauza andiric ecusten). Ala bada iraun ezazu modestia eta honestidadearequin jazten, eta aldeguizu janciera arro ta gueyeguietatic. Ezagu bezate guciac zure modestia esaten digu Sⁿ Pabloc. Jesusen legue ederrac ez dizu devecatcen apaintcea Jaunaren beldur santuareqⁿ, modestia ta honestidadearequin. Jaunaren beldur santuac ayenatcen du pecatua; modestiac quentcen ditu jancieraren arrotasunac; eta onestidadeac ematen dio janciari gracia, edo edertasun andia. Onela zuec ere burua apaintceco, jantci zaite zure estadu, ta mallari dagocan eran. Beguira NC, nola apaindu zaitezquean pecaturic gabe, munduac eracusten dizun baño ederquiago, eta comunioco sacramentuaren ondasunac oparitcea eragozten ez dizuneran. Ala ere ecusi oidira cembait Christu Eleizara etortcen, ain baldar eta enas, ecen, dirudi, ez duela uste Jaunaren echea eta egon toquia dala.

Azquenic comunioco sacramentuaren ondasunac ugari artceco, jarri bear da, Jaunaren mayan beguiramentu, edo beldur andi batequin, gogora ecartcen dala, noren mayan jarri, eta nor artu bear dan. Testamentuco cucha etzan sacramentu orren iduria baicic; eta ala ere, nai izan zuan Jaunac, cucha oni beguiramentu aundi bat gordetcea, alacomoduan, ecen cucha au cerabilitenean batetic bestera, aguindu zuan, etcequiola iñor alderatu bi milla besoz, eta gueratu ciran illotzac berrogeita amar milla Betsamita, saloegui ibilli ciralaco cucha ecusi nayez. ¿Nolaco beguiramentu ta beldurra zorco ez diogu bada sacramentu orri, Testamentuco cuchari alacoa zor bacitzayon?

Orra, NC^a, cer bear dan comunioco sacramentuaren ondasunac ugari artceco. Erraz iguerri dezaquezu emendic, cergatic arquitcen gueran gu beti, gauden beceñ argal, eta beartsu animaren aldetic: baña au obeto ezagutceco, eta bear diran asmo onac artceco, jarri gaitecen belaunico Jaunaren aurrean, eta gogoan erabilli ditzagun gaur arguitu ditugun gauzac. Se arrodillan todos, y lo q^e. sigue, se lee mas pausado.

Oracioaren gaya

1^o,

Beguira, Christaua, lenengo lecuana, cer bear dan Comunio gaiztoa ez eguiteco. Guchienaz egon bear da Jaunaren gracion ¿Baña cembat dira, graciaren soñeco ederra gabe, Jaunaren mayan jartcen diranak? Batzuec, lotsaz pecatuac aguertu gabe vici diranac, besteac, agun vicoen gorrotoa viotcean gordetcen duenac; batzuec, pecaturaco videac, eta anciñaco oitura zarrac uzteco viotcic ez duenac; besteac, lagun urcoari, edo erriari eguindaco calteac deseguiten ez dituenac; edo humeai ceruraco videa eracusteco arretaric ez duenac. Hoec guciac jartcen dira Jaunaren mayan, graciaren apaindura gabe ¿Cer esaten ote die onelacoai Jesus onac? Esaten die, estayera soñeco egoquiric gabe sartu zanari esan sitzayona. ¿Adisquidea, nola zatoz may onetara, ezta yetaco soñecoa gabe? *Amice quomodo hue intrasti non habens vestem nuptiatem?* ¿Cer gueyago esten die Jesusec? Judasi esan ciona, musuca eta adisquidearen idurian bere etsayen atzaparretan ipiñi zuanean: ¿Judas adisquidea baciña becela, musu ematen didazu, eta nere etsayen atzaparretan ipintzen nazu? *Juda, osculo Filium hominis tradis?* ¿Eta nola ote goaz gu, Christaua, Jaunaren mayera?

goraz gu, Christava, Jaunaren mayara?

2.º p.º

Beguina varena, cez beaardon, Sacramentu orren ondasu-
nae vgorari antecco. Onetanaco ez da asco, peccatu larri, edo
mortalic ez izotea; baicic garbitu bea da anima, peccatu
venialen gogo edo vorondatatic ere; apaindu bea da anima
fede, esperanza, ta caridadearen virtutequin: Sacramen-
tu artu bea da, asmo edo intencio garbituarequin, ez bon-
char, eta ez oitura utrez ere; Joan bea da ^{modestia} ~~sanctio~~ andi
bat exacusten dala: ta bequinamentu ta beldua aundi bate-
quin. Ongui nere Christava; eta nola suan ote guera gu
Jaunaren mayara? Garbitu ote degu anima, peccatu ve-
nialen autselatic? Edo aetara vintecco gogoetatic? Ay!
guchi dira ou equiten duenac. Apaindu ote degu anima
fede, esperanza, ta caridadearen virtutequin? Asco di-
gaurza oeraz oroiteen ere ez diranac. eta ez ote guera
ascotan larri Jaunaren mayan oitura utrez; Sacramen-
tuaren ondasunac antecco pose eta egarria gabe? Ez de-
gu beaz cez mixetri, baldin Comunico ondasu metatic
guchi artu badequ. Vere Christava; ez da au gaurza
negargarria? eta ez ote guera orain bedenic sayatuco,
Sacramentu miragarri orrec egiteen duan foristaena
ongui equitara?

Selexanta el Predicador y continuo

2^opto

Beguiru urrena, cer bear dan, sacramentu orren ondasunac ugari artececo. Onetaraco ez da asco, pecatu larri, edo mortalic ez izatea; baicic garbitu bear da anima, pecatu venialen gogo edo vorondatetic ere; apaindu bear da anima fede, esperanza, ta caridadearen virtuteaquin: Sacramentua artu bear da, asmo edo intencio garbiarequin, ez borchaz, eta ez oitura utsez ere; joan bear de janesan andi bat eracusten dala: ta beguiramentu ta beldur aundi batequin. Ongui nere Christaua; ¿Eta nola juan ote guera gu Jaunaren mayara? ¿Garbitu ote degu anima, pecatu venialen autsetatic? ¿Edo aetara viurtceco gogoetatic? Ay! guchi dira au eguiten duenac, ¿Apaindu ote degu anima, fede, esperanza, ta caridadearen virtuteaquin? Asco dira gauza oezaz oroitcen ere ez diranac. ¿Eta ez ote guera ascotan jarri Jaunaren mayan oitura utsez; Sacramentuaren ondasunac artececo gose eta egarria gabe? Ez degu beraz cer miretsi, baldin comunioco ondasunetatic guchi artu badegu. Nere Christaua, ¿Ez da au gauza negargarria? ¿Eta ez ote guera orain bederic sayatuco, sacramentu miragarri orrec escatcen duan prestaera ongui eguitera?

Se levanta el Predicador y continua

Asmo onac,,

Christaua; gure animen jabe, eta salvatzalle Jesus maitagarria etorria dago sacramentu orretara, guri emanal gucia emateco; eta naroro, ta ugari ematen dizte prestaera onarequin artcen duenai: baña guc galdu degu gucia, animaco gaucetan degun zabarqueri, ta naguitasunagatik. ¿Cer bada eguin aldezaquegu, etorri zaizquigun calteac deseguiteco? Eztago beste videric, ezpada oraindañoocoaz Jaunari barcacioa escatcea, eta aurrera gure arreta egunetic egunara ugaritcea. Gouin dezagun au, eta sacramentu orren ondasun, eta laguntza ugariac artuz, iritsi dezaquegu gure egunac ongui bucatcea, eta guero betico vicitza ederra ceruan.

Amen.